

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea etxeko laguntza zerbitzuaren arautegiari

Hasierako onespena eman zaio udal honetako etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen arautegiari, korporazio honetako udalbatzak 2021eko otsailaren 18ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. eta 70.2. artikuluetan, eta Toki Araubidearen Testu Bateratuak 56. artikuluan xedatutakoaren arabera; horiek horrela, jendaurrean jartzen da eta interesdunei entzunaldia ematen zaie, hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hura aztertu ahal ditzaten eta egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten.

Epe horretan, interesa duen edozeinek espedientea udal bulegoetan aztertu eta egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Halaber, interesdunen eskura egongo da udal honen web orrian: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus).

Epe horretan ez bada aurkezten erreklamaziorik, arautegi horren onspen erabakia behin betiko onetsizat joko da.

Arespalditza, 2021eko otsailaren 22a

*Alkatea*

**GENTZA ALAMILLO UDAETA**